

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

HERNANIKO UDALA

Iragarkia

Mugape eta Antolaketa Judizialaren 38/1988 Legean, Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoan eta Bake Epaileen 3/1995 Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorruta, Hernaniko Udalak tramitatu behar du bake-epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko espedientea.

Horretarako, hautagai izan nahi duten pertsonak eskaera aurkeztu ahal dute udaletxe honetako erregistroan, iragarki hau argitaratu eta 15 egun balioduneko epemugan.

Izendapena 4 urterako egin behar da, eta eskaera aurkeztu duten pertsona denek arestian aipatu diren arau horietako baldintza guzti-guztiak bete beharko dituzte. Horretaz gain, hautagaiak ezin izango dira egon Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan aurreikusitako funtzio judiziala betetzeko ezgaitasun- ezta bateraezintasun-kausaren batean.

Aintzat hartuko dira hautagaien kurrikuluma, euskara jakitea eta Hernanin bizitzea.

Guztiek jakin dezaten horren berri ematen da.

Hernani, 2022ko abenduaren 14a.—Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, alkatea. (7923)

AYUNTAMIENTO DE HERNANI

Anuncio

De acuerdo con lo dispuesto en la Ley 38/1988 de Demarcación y Planta Judicial; en la Ley Orgánica 6/1985 del Poder Judicial y en el Reglamento 3/1995 de los Jueces de Paz, el Ayuntamiento de Hernani está tramitando el expediente para elegir Juezas o Jueces de Paz titular y sustituto.

Para ello, las personas interesadas pueden presentar la correspondiente instancia en el registro de este ayuntamiento en el término de 15 días hábiles desde la publicación de este anuncio.

El nombramiento se realizará por un periodo de 4 años, y las personas que presenten la solicitud deberán cumplir todos los requisitos de las citadas normas, además de no estar incursas en ninguna de las causas de incapacidad e incompatibilidad para ejercer la función judicial previstas en los artículos 102, 302, 303 y 389 de la ley orgánica del poder judicial.

Se valorarán el curriculum, conocimiento del euskera y la residencia en Hernani.

Todo ello se hace público para general conocimiento.

Hernani, a 14 de diciembre de 2022.—El alcalde, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. (7923)